




Herri Plataforma sortu da Andoainen, A-15 eta N-1 lotune berriaren harira

Andoaingo Saihesbidea aldarrikatzen dute, Aldundiaren egitasmoari kritika eginez / 2-4



Donostiako Musika Hamabostaldiko nazioarteko organo-zikloaren zuzendaria da Ana Belen Garcia / 8-9



Europako sega txapelketan txapeldun-orde izan dira Gabirondo eta Euskal Selektzioa / 10

Bezzeroaren astea

2022ko iraila

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

**EROSI ANDOAINEN
2 eta 5€ko sariak**



**GORA
KALETXIKI
TXARANGA
ANDOAINGO
KALEETAN.**

17:00-20:00



Parte-hartzaileak: Amabi, Gloss, Durazno, Alice, Amantegi, Ormendi kirolak, Pottoko, Maindi, Xare, Iturbe, Gorostidi, Gamer, Izeia, Pepi, Cisneros, Gonzalez, Stop, Ernaitza



Etxarte, Perez de Eulate, Lopez, Aiertza eta Aizpurua Arantzibia plazan. Atzealdean Buruntza eta Bazkardo aldeak. AIURRI

"Udal arkitektoak dioenari kasu egitea, hori da udal ordezkarien aldetik espero duguna"

IÑAKI PEREZ DE EULATE HERRI PLATAFORMAKO KIDEEN BOZERAMAILEA

Abuztuan, oporraldia alde batera utzi eta alegazioak lantzeari eta Herri Plataforma osatzeari ekin diote. Bost agertu dira Aiurrira, baina geroz eta gehiago direla diote

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Xabi Lopez Txistoki karrozeriko jabea da, eta udan jakin du Aldundiak sustatu nahi duen CII delako egitasmoak zuzen-zuzenean eragiten diola. Plataforman sartzea erabaki du. Gaiarekin kezkatzen hasi zen lehenengotakoa Itsas-Mendi karabanak enpresako Ainara Etxarte izan zen, 2019an EAJ-PNVk herrian zabaldu zuen eskuorriko infografia batean errepide berriaren ibilbidea euren negozioaren gainetik ageri zela ikusi zuenean.

Aitor Aizpurua Sorabillako Allurralde Berri baserrikoa da, eta egitasmo berriarekin lursail ugari galdu eta errepide berria baserritik metro gutxira gertuko litzaioke. Ainhua Aiertza Buruntzako Elizalde-txiki baserrikoa da, eta A15 errepidearen trafikoa eragindako zarata akustikoa eta kutsadura pairatu behar ditu. Gaur da eguna, errepide berri samarra izanik ere, auzune horretan ez dela zarataren aurkako panelik ipini. Guztiek bat egin dute udan bertan

sortu duten plataforma berrian. Haien guztien bozeramaile Iñaki Perez de Eulate da. Mugikortasun teknikaria eta andoaindarrak izanik, auziaren informazio ugari jasotzen eta azaltzen asmatu du. Eta, bidean, bizilagun, enpresa eta auzo elkarteetako jende gehiago batzen ari dira.

Basteron eta Karrika elkartearen auzo bilera bana egin ostean, eta ehundik gora lagunei azalpenak eman ostean, ekimen betean murgildu dira. Salkin elkartearen merkatariekin elkar-

tu dira eta hurrengo egunetarako bi hitzordu deitu dituzte. Lehena, igande honetan. Buruntzako San Martin aztarnategitik abiatuko dira 10:00etan eta herrian barrena ibilbide-gidatua egingo dute. Eta, bigarrena, astelehenean. Pleno berezia deitu baitu alkateak, Herri Plataformaren mozioa aztertzeko. Arratsaldeko 19:00tan izango da. Bietara joateko deia luzatu dute.

Elkarriketa hasi aurretik hizketan hasi da Iñaki Perez de Eulate. Xabier Intxaurza Andoaingo Udal arkitektoak idatzi dituen ondorioak irakurri ditu, hori baita bere ustez lerroburu nagusia. Arkitektoak Udal ordezkarien esku utzi duen txostenaren ondorioa oso argia da, burokrazian ohikoa den hizkeratik oso aldentuta dagoena. Gaztelaniaz dago idatzita, baina gutxi-asko haxe litzateke itzulpena: "Hirigintza Batzordearen esku uzten da Gipuzkoako Foru Aldundiari egitasmoaren aurkako iritzia helaraztea, aurkeztu duten asmoa birpentsatzeko eskatuz eta udalerraren kanpoaldetik igaroko litzatekeen saihezbidea azter dezan, auzia bera eta sor daitezkeen eraginak osotasunean konponduko liratekeelako".

Herri Plataformako kideentzat txosten hori erabakiorra da, eta Udal ordezkarietako datoren asteleheneko plenoan Udal arkitektoaren txosten horrekin bat egiteko eskaera luzatuko diete. **Abuztuan gorpuztu zen Herri Plataforma. Hori adierazten ari zarete auzo bileretan, eta geroz eta ekimen gehiago iragartzen ari zarete. Noraino iritsi nahi duzue?**

Aitor Aizpurua: Lehenik eta behin, herritarrei informazioa helarazi nahi diegu. Desinformazioa sekulakoa da eta, gainera, interesatua dela esango nuke. Zenbat eta desinformatuago eduki gizartea, orduan eta alegazio eta oposizio gutxiago izango delako eta egitasmoa aurrera eramatea samurragoa izango delako. Lehen helburua hori da. Zeren eta informatuta dagoen edozein andoaindar ezin da egitasmo honen alde agertu.

Eta noraino iristeko prest zaudete?

Iñaki Perez de Eulate: Bide administratiboari ekin diogu, eta abokatu talde batekin ari gara lanean. Administrazioetik erantzuten dutenaren arabera, akaso epai-bideari ekin beharko diogu. Argi dugu 2011ko Hiri

Antolamendurako Plan Orokorren filosofia Andoaingo etorkizuna dela. Aldiz, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu nahi duen egitasmoak herri osoaren etorkizuna baldintzatzen du.

Zuen aurkezpenak entzuten jarrita, oso baieztapen irmoak egiten dituzue. Zuei entzunda, bateraezina da Andoaingo Plan Orokorra garatzea eta Aldundiaren C2 delako egitasmoa defendatzea. Edo bat, edo beste. Hori ulertzen dugu.

Iñaki Perez de Eulate: Andoaingo Plan Orokorrean egungo N1aren ibilbidea udalerriko iparra eta hegoa lotzeko barne errepide bezala kontutan hartzen da. Eta Karrika, Kaleberria, Kale Nagusia eta Kaletxiki erdi peatonalak izatea eragingo luke horrek. Udal Arkitektoak defendatzen du hori. Horri esker merkataritza garatuko litzateke, baita gizarte mailako garapena. Eta gaur egun errepideak eragiten dituen kalte akustikoa eta atmosferikoa nabarmen jaitsiko lirateke. Bada beste arrisku bat. 1983ko uholdeak eta gero, N1aren ibilbidea uholdeak eragiteko pantaila modura bilakatu zen. Eta geroztik idatziz jaso da N1 errepidearen trazatua urruntzeko egitasmoa. Allurralde kiroldegia, Ubitarte zelaia, Aita Larramendi ikastola hori guztia bertan eraiki zen errepidearen urrundu egingo zela aurkuziz. **Kezka ez da bakarrik herritarrena. Lehen bileran kezka eragin zuen Calonge eta Txistoki arteko eremuan, errepideak zabaltzean, horrek ekarriko dien zailtasun erantsia bertako tailer eta fabrikei. Noiz izan zineten horren jakitun?**

Ainara Etxarte: EAJ-PNVk bere herri programa aurkeztu zuenean, gure negozioaren gainetik errepideak agertzen zen grafikoa ikusi genuen. Bidegitik lasaitasuna azaldu digute denbora honetan guztian, eta milimetro batera gertuko litzateke errepide berri hori. Herritar modura bertan sortzen den kutsadura ez da txikia izango, zeren eta trafikoa areagotu egingo da.

Xabi Lopez: Neuk udan izan dut horren berri. Gure kasuan gure enpresari eta ingurukoari behin-behinean espropiatu egiten gaituzte. 28 hilabetez. Eta, noski, hori gabe ezinezkoa zaigu horrela lan egitea. Guri inork ez digu ezer esan. Ainarari behin behineko espropiazioen mapa bat eman zioten, eta berak eman zidan abixua.

Bidegi, Adoingo Udala... Faltan bota al duzue komunikazioen bat?

Xabi Lopez: Guri ez digu inork ezer esan. Kasualitatez izan dugu honen berri. Ibilbide berriak eragin zuzena izango du gure industriagunean, eta, obrak iraun bitartean, ezingo dugu tailerra- ren kanpoaldea erabili.

Ainara Etxarte: Etxea expropiatuko dien jendeak Bidegira edo Udaletxera ate-joka joatean jakin du, ez lehenago.

Iñaki Perez de Eulate: Beti izan da horrela. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu zela adieraziko dizute kontu eske joatean. Baina nor egoten da boletineraren begira?

Alegazioak lantzen ari zarete, denbora tarte honetan.

Iñaki Perez de Eulate: Alegazio orokorrak lantzen ari gara. N1 errepidea gain-dimentsionatuta dago. 70.000 ibilgailu igarotzen dira hortik, eta berez 40.000 bakarrik dagozkie. Horrek esan nahi du errepide berria kopuru horretara dimentsionatu behar dela. Bestea, indarrean dagoela Hirigintza Plan Orokorra. Eta hori bete egin behar dela. Nik etxe bat egin nahi badut, ezin dut egin ez badago aurrikusita Plan Orokorrean.

Errepidearen gain-dimentsioa aipatzen duzunean, zein datu erabiltzen dituzu?

Iñaki Perez de Eulate: Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen dituenak.

Udalaz gaindiko erakundeek orain badute euren egitasmoak ezartzeko aukera.

Iñaki Perez de Eulate: Orain bai. Tapia legea bezala deritzon legearekin, bai. Oraingoz ez da inon aplikatu, eta aplikatzen den lekuan bertako Udala eta herritarrak aurka agertuko lirake. Ikara emango luke horrelako aplikazioak. Ez dugu lege hori aplikatzen lehenak izan nahi.

Soinuari dagokionez, eta, Andoainen horrek azken urteotan sortu duen zalaparta ikusita, Mimendi parean estaliko den ibilbide zatia grafikoetan agertu bai baina aurrekoturik ez dela jasotzen adierazten ari zarete auzo bileretan. Hori horrela da?

Iñaki Perez de Eulate: Bai, eta hori Udal Arkitektoaren txostenean jasotzen da. Egitasmo bat aurkeztu dute aurrekontu batekin. Mimendiko estalkia hobekuntza modura agertzen da, partida ekonomikoa sortzen denerako

utziz. Nik orain galdetzen diot edonori: Aldundiak C2 egitasmoa egiten badu, noiz estaliko du Mimendi? Jakinda gainera hori egiteko N1 errepidea moztu behar dela? Noiz egingo du? 2050a botatzen dut nik.

Zaratari dagokionez, zerorrek salatu duzu bileretan Buruntzako errepidea 2011koa dela eta errepide berria izanik oraindik ez dituztela zarata saihesteko panelak jarri.

Ainhoa Aiertza: Egitasmoan hasiera-hasieratik agertzen dira panel horiek. Udalak antolatzen duen bilera guztietan eskaera bera egiten dugu. Legeak onartzen duena baino zarata handiagoa pairatzen ari gara.

Iñaki Perez de Eulate: Errepidea eginga dago, berria da eta ez dago ezer jarrita.

Alegazio asko aurkeztuko direla aurrikusten duzue?

Iñaki Perez de Eulate: Alegazio orokorreaz gain, kaltetuen alegazio zehatzak aurkeztuko dira. Biltzen hasi ginenean azken kaltetua defendatu arte jarraitzea erabaki genuen. Elkartuta egon behar dugu, bestela ez zen indarrik egiten.

Igandean ibilbide-gidatua egingo duzue. Zein da asmoa?

Ainhoa Aiertza: Buruntzatik hasi eta oinez Bazkardo aldera joango gara, eta segidan Mimendira. Handik Aita Larramendi ikastolara, eta Karrika aldean amaituko dugu. Bi orduko ibilbidea izango dela aurrikusten dugu.

Asteleheneko plenoan zer espero duzue?

Iñaki Perez de Eulate: Udal Arkitektoak dioenari kasu egitea, hori da Udal ordezkarien aldetik espero duguna.

Desio bat dirudi horrek.

Iñaki Perez de Eulate: Ez dut beste emaitzik espero. Beste emaitza emanez gero ondorioztatuko nuke Udal ordezkarien artean eserita dauden batzuk ez dituztela andoaindarren interesak defendatzen. Interesa Andoainen duenak ezin du Aldundiaren egitasmoa defendatu. Esan beharko liguke Aldundiaren egitasmoak zein onura ekarriko liokeen Andoaini. Ez dio onurarik sortzen. Andoingo Udal korporazioak andoaindarren interesak babestu beharko lituzke. Konfiantza hori ematen diegu hamazazpi zinegotziei.

Zuen mozioaren edukiak zer dio?

Iñaki Perez de Eulate: Plan Orokorra defendatzen dugula, eta bere baitan planak ekartzen dituen onurak. Horren arabera N1 errepidearen ibilbidea herrigunetik urrundu behar da. Eta errepidea urruntzeko egitasmo hori trafiko naturalera dimentsionatu behar da ahalik eta eragin txikiena sortzeko ingurumenari eta bertan bizi direnei.

Aldundiaren C2 egitasmoa baztertea eskatzen ari zarete.

Iñaki Perez de Eulate: Birpentsatzea eta baztertzea, hori eskatzen ari gara.

Andoingo Udalak, beraz, Aldundiari egitasmoa bertan behera uztea eskatu beharko lioke?

Iñaki Perez de Eulate: Udal Arkitektoak egingo dio bidea korporazioari. Erraza da. 2011n sei alternatiba aztertu ziren, eta horietatik bost Plan Orokorra garatzen laguntzen zuten. Bazegoen bat Plana garatzen uzten ez zuena, eta puntuazio okerrean jaso zuena. Bada, alternatiba hori da Aldundiak orain aurrera eraman nahi duena. Ez dezagun aukera txarrena hartu! 2011n txarrena zena ez dezagun orain onartu!



AIURRI

"C2 delakoa ez zait bidezkoa iruditzen"

IÑAKI PEREZ DE EULATE
PLATAFORMAKO KIDEA

Azken asteetan protagonismo handia hartzen ari zara. Kontziente zara?

Bai, protagonismo gehiegi hartzen ari naiz.

Aurreko asteko Andoingo Udaleko Hirigintza Batzordean zeu eta plataformako kideak EAJ-PNVko ordezkariarengana zuzendu zineten. Gutxi-asko, ea Andoain bizi duen galdetzen zenioten. Baina, kontrara, nor da Iñaki Perez de Eulate? Belaunaldi berriek ez dute zure berri.

Andoaindarra naiz, azken 30 urteetan hemen bizi ez naizena. Enpresa batzuk gidatu ditut, bereziki mugikortasun arlokoak. Gazte garaian eta Andoainen mugitu izan nintzen, eta egitasmo honekin inplikaturik nago aspalditik.

Ezagutza handia erakusten ari zara.

Nire lanbideagatik gertukoa zait eta Andoainera etorri eta Aldundiak C2 delakoa planteatu duela ikusita ez zait bidezkoa iruditzen. Batez ere andoaindarren bizimodua baldintzatuko duelako. Ez nuke protagonismo handirik hartu nahi, hori andoaindarrei eta kaltetuei dagokie. Horrela izan beharko luke.

Auzo bilerak Bastero Kulturgunean eta Karrika elkartearen

Irailaren lehenean lehen bilera deitu zuten bereziki Mimendi, Bazkardo eta Alejandro Calonge auzuneetako bizilagunei zuzenduta. 70 lagunetik gora hurbildu ziren hitzordura. Gehienak auzune horietakoak, baina baziren herriko beste auzoetako bizilagunak ere.

Irailaren 5ean, Karrika elkartera deitu zituzten Karrika, Zumea kalea eta inguruko auzotarrak. 40 lagun inguru elkartu zen, eta bertaratu zirenek Sorabilla eta Bordaberriri buruzko galderak ere egin zituzten.

"Plataforma osatzen dugunok indarrean dagoen Hirigintza Plan Orokorra defendatzen dugu. Foru Aldundiak aurkeztu duen planak baliogabetu egiten du Andoingo Plan Orokorra. Horregatik osatu dugu plataforma, eta bertan gaude zuzenean kaltetutako herritarrak, zeharka kaltetutako herritarrak eta beste hainbat andoaindar". Argudio hori errepikatu zuten bi bileretan.



"Herri duin batean bizitzeko eskubidea dugu", Basteroko lerrobura. AIURRI



"Herriaren etorkizuna jokoan dago", Karrikako bileraren lerrobura. AIURRI

Iritziaz gain, botoa emango dute alderdiek

Gipuzkoako Foru Aldundiaren egitasmoa defendatzen duen alderdi bakarra EAJ-PNV da, azken Hirigintza Batzordean entzundakoak entzunda. EH Bildu izan da hiru urtez aurkako jarrera argia izan duena. PSE-EEK publikoki adierazi berri du ez duela gogoko

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Irailaren 1ean Hirigintza Batzordea deitu zuten, eta bertatik bi aipamen egin daitezke. Alde batetik, alkatetza duen PSE-EEK publikoki Aldundiaren egitasmoa ezbaian jarri zuela. Eta, bestetik, Andoainen osatu berri den plataformaren ordezkarien parte hartze aktiboa. Aldundiaren egitasmoaren kaltetu zuzenak eta zeharkakoak dira, eta azken egunetan herri bilerak egiten ari dira. Hirigintza Batzordean Udal Arkitektoak hainbat alegazioen inguruko xehetasunak eskaini zituen. Ondoren etorri ziren balorazioak. Ordezkaritza duten lau alderdietatik hiruk Gipuzkoako Foru Aldundiaren egitasmoarekiko desadostasuna agertu zuten. Horrexegatik, plataformako kide guztien begiradak EAJ-PNVko Imanol Goenagarengana zuzendu ziren.

Kritiko agertu ziren jeltzaleen jarrerarekin. Goenagak hainbat parte hartzaileei erantzutea erabaki zuen, eta ez zen eztabaida guztietan sartu.

Herri plataformak plenoa deitu du datorren astelehenerako. Alderdi bakoitzaren jarrera argituz doala dirudi. Hauexek aurreko asteko Hirigintza Batzordean adierazitakoaren hainbat adierazpen:



Bazkardoko lotunea. AIURRI

Maidier Lainez
PSE-EEko bozeramailea:

“Sozialistak Andoaingo Hirigintza Plan Orokorren defendatzaileak gara. Orduko izpirituari eusten diogu udalerrria batu egiten duelako. Aldundiak aurkeztu duen egitasmoa ez dugu

“ALDUNDIAREN EGITASMOA EZ DUGU GOGOKO, ETA EZ GAITU ASEBETETZEN”

MAIDER LAINEZ, PSE-EE

gogoko, eta ez gaitu asebetetzen. Ez dituelako udalerriko eskaerak asebetetzen eta, are gehiago, udal barruko konektibitatea zailduko litzateke. Harrigarria da, bestalde, Aldundiaren egitasmoan ez direla neurri akustikoak eta babes neurriak aipa-

“EZEZKOA ESATEKO GARAIA DA. EZ DUGU NAHI ALDUNDIAREN EGITASMO HORI”

JON ZULUETA, EH BILDU

tu ere egiten. Udalak denbora asko darama eskaera hauek egiten”. Adierazi zuenez, iritzia hau indartuz joan da udalerriko bizilagun, elkarte eta enpresa ezberdinekin izandako bileren ostean. Aldundiari zuzendutako erantzuna bateratua izatea eskatu zien Alkateak gainerako alderdiei.

Jon Zulueta

EH Bilduko bozeramailea:

“Abuztuaren 11ko Hirigintza batzorde aipatuz hasiko naiz. Bertan argi geratu zelako, lehen aldiz hiru urtetan, gehiengo oso bat C2 egitasmoaren aurka agertzen zela. PSE-EE lehen aldiz agertu zen aurka. Berandutxo dator jokabide hau. Gauza asko batera egin behar dira orain: Alegazio partzialak, ikerketa konparatiboa aurkeztu... zergatik ez da hori lehenago egin? Inakzioa eta estrategia falta izan da. 2019ko martxoan EAJ-PNVk hobekuntza aurkeztu zuen, 25 milioi egitasmokoa eta Oiarbide Foru Diputatuaren babesarekin. Agintaldiko lehen plenoan mahai gainean jartzea eskatu genuen. Ez zen erantzunik izan, ez dago egitasmorik. Batzordeetan, plenoetan galdetu dugu... 2021eko uztailan egitasmoa aurkeztu zuen Oiarbidek eta urtea joan zaigu. EH Bildutik mahai politiko, tekniko eta herritarrena egitea eskatu genuen hasierahasieratik. Udal arkitektoaren txostena eta ingurumen teknikarien txostenak ditugu. Argiak

“UDALAK FRONTALKI AURRE EGIN BEHAR DIO ALDUNDIAREN EGITASMOARI”

JOSE MARI IPARRAGIRRE, PODEMOS

dira, aurkakoak. Gehiengo politikoa eta gizarte gehiengo antzematen dugu egitasmoaren aurka. Zer gehiago behar da honen aurka egiteko? Ezezkoa esateko garaia da. Ez dugu nahi, etorkizuna baldintzatuko du”.

Joxe Mari Iparragirre

Elkarrekin Podemos:

“Udalak frontalki aurre egin behar dio egitasmoari, eta ezer gutxi erantsi dezakegu PSE-EEK eta EH Bilduk adierazi diotenari”.

Imanol Goenaga

EAJ-PNVko bozeramailea:

“Garapen teknikoen aldeko alegazioak defendatu nahi ditugu. Alegazioak garrantzitsuak iruditzen zaizkigu eta arazoa modurik globalean defendatzea eskatu nahi dugu. Saihesbidearen egitasmoan parte hartu izan genuen, PSE-EErekin batera, 2007-2011 agintaldian. Azpikolako auzia dela eta, 2011ko pleno hartan abstentzioaren alde egin genuen. Aldundiaren egitasmoarekin bizi maila galdu eta konektibitatea galtzen dela entzun dugu gaur, baina gure ustez ez da horrela”. Aldundiak Udalaren alegazioak bere egitea espero duela adierazi du. EH Bilduri zuzenduz, aurkakotasuna agertzea zilegi dela adierazi zien, baina jeltzaleek interesak bide teknikitik defendatzea aldarrikatu zuen.

Asteleheneko plenoan, iritziez gain, botoa eman beharko da.

"GARAPEN TEKNIKOEN ALDEKO ALEGAZIOAK DEFENDATUKO DITUGU"

IMANOL GOENAGA, EAJ-PNV

Ingurunean integratzeko eta bakardadea saihesteko egitasmoa

Erroldako datuen arabera, 65 urtetik gorako 3.486 pertsona bizi dira Andoainen

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Maidier Lainez Andoaingo alkateak eta Ana Sanz Gizarte Zerbitzuetako teknikariak bakarrik edo beste adineko batzuekin bizi diren adineko zuzendutako programa integrala aurkeztu dute.

Programak sei proiektu garatzen ditu bere baitan:

1. Eguneko arreta-zentroa.
2. Konekta2 proiektua: etxean sentore ez-intrusiboak instalatzea bakarrik bizi diren adinekoen zerbitzura.

3. Ingurunean integratzeko eta nahi ez den bakardadeari aurrea hartzeko proiektua.
4. Bakarrik edo beste adineko batekin bizi diren adinekoen gizarte-premien azterketa.
5. Etxez etxeko arretarako gaueko zerbitzua.
6. Laguntza zerbitzua.

Sei proiektu edo zerbitzu horietatik, bi lehenbizikoak abian dira jada. Laugarrena, bosgarren aeta seigarrena hurrengo hila-beteetan aurkeztuko dituzte.



Maidier Lainez alkatea eta Ana Sanz Gizarte Zerbitzuetako teknikaria. AIURRI

“Herritarren beharretara egokitutako ikastaroak ditugu”

JONE TOLOSA ZABALA ANDOAINGO AEK-KO ZUZENDARIA

Urriaren 3an ekingo dio Andoainen AEK-k ikasturte berriari. Hala, berrikuntzekin dator, bai eta mota guztietako erraztasunekin ere

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN

Uda amaitu berritan, eta udazkena ate joka, hemen dator AEKren 2022-2023 ikasturtea, urte pandemikoen irakaspenekin eta berrikuntzaz blaituta. Irailaren 23ra bitarte izango du Andoaingo euskaltegiak matrikulazio-kanpaina martxan. Hala, burubelarri lanean da jada lantaldea, eta, tartean da Jone Tolosa euskaltegiako zuzendaria.

Zapore gozoz bukatu al zenuten joan den ikasturtea?

Bai, hori da. Egia esan oraindik amaitzen gabiltza udako ikastaroak. Azken horiek ere jendetsuak izaten ari dira. Azken urteetan, matrikulazioan eragin zuzena izan zuen pandemiak, hau da, urte gorabeheratsuak izan dira, protokolo-alaketekin. Baina eman dutenarekin, gus-tura. Orain, udan atsedean hartu ondoren, indarberrituta gatzoz. **Noiz ekingo diozue ikastaroen jardunari?**

Urriaren 3an ekingo zaio ikasturteari eta ekainaren 22ra bitarte iraungo du. Orain, matrikulazio-kanpaina gaude: abuztuaren 29an hasi ginen eta irailaren 23an bukatuko da.



AEK-ko ordezkariak Andoainen duten egoitzaren kanpoaldean. AIURRI

Aurten, “Ikasi euskara bidelagun onenarekin” izango da AEKren lelo nagusia. Gure irakasleak nabarmendu nahi ditugu, motibatuak, gertukoak eta konprometituak baitira, baikara.

Hari horri tiraka, herritarrek, bidelagun onenaren eskutik, zerekin egingo dute topo zuen euskaltegian? Herritarren beharretara egokitutako ikastaroak ditugu Andoaingo euskaltegian, goizez,

arratsaldez eta iluntzean. Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak ditugu, baita gurasoei begirakoak ere (haurrak eskolan dauden bitartean). Bestalde, AISA ikastaroa dugu, kanpoko jatorria duten herritarrei zuzendua. Aurten, gainera, azken hori ehuneko ehunetan Andoaingo Udalak babestuko du ekonomikoki. Halaber, lan-ordutegiak kontuan hartuta, merkatariek

beren lekua izango dute gurean: bertan, egunerokotasunean bezeroa euskaraz artatu ahal izateko jakin beharreko hiztegia ikasiko dute, besteak beste.

Berrikuntza gisa, bereiziki, Batxilergoko nahiz Lanbide Heziketako ikasleei zuzendutako C1 ikastaroa ipini dugu martxan. Eta, lehen aldiz, C2 maila ere eskainiko dugu.

Euskaltegian bertan, aurrez aurreko klaseak nahiz Autoikaskuntza aukera bermatuko ditugu: ikasleak, astean behin, tutoretza presentziala izango du, eta baita mintzapraktikara joateko aukera ere, baina, aldiz, lanak etxetik egingo ditu. AEK-k online zerbitzua ere badu.

Euskararen urtea omen dela diote askok. Korrika, Euskaraldia, Euskal Herriko Bertso Txapelketa...? Aitzakia ederra euskaraz ikasten hasteko, ezta?

Guretzat urtero da euskara ikas-teko momentu aproposa, baina, lehen esan bezala, pandemiaren eraginez zenbait herritarrek euskararekiko lotura galdu dute; beraz, orain, garai polita da berriro hori berreskuratzeko eta martxa hartzeko. Gu oso gogotsu gaude.

Interesa duenak nola eman behar du izena?

Euskaltegira etor dadila, Plazaola kalea, 2. Bestela, gure telefono-zenbakira hots egin dezake: 943 59 17 04. Azkenik, helbide elektronikoa ere badaukagu harremanetan ipintzeko, andoain@ae.eus.

“IKASI EUSKARA BIDE-LAGUN ONENAREKIN” IZANGO DA AEK-REN LELO NAGUSIA



Euskaraldia, aurreko edizioan. AIURRI

Andoaingo Euskaraldiak bilera deitu du, Urigainen

Datorren asteazkenerako deitu dute bilera, arratsaldeko 18:00tan hasiko dena

Komunitatea

EUSKARALDIA / ANDOAIN

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean izango da Euskaraldiaren hirugarren edizioa, Hitzeez ekiteko garaia lemapean. Euskararen erabilera eta hizkuntza-ohituretan eragitea du helburu Euskal Herriko ariketa sozial masiboak, eta herritarro dagokigu Euskaraldia gure herriko errealitatera egokitzea eta martxan jartzea.

Horregatik, irailaren 14an (asteazkena) 18:00etan Urigainen egingo den bileran parte hartzeko deia egiten diegu herriko eragileei eta norbanakoei. Zuen parte hartzea garrantzitsua da!

Bezeroaren Astea eta Outlet kalean, datorren astean

Astelehenean hasita, erosketa egitean sariak lor daitezke. Eta 16an zein 17an, Outlet kalean ekimena

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Urtaro aldaketarekin, herriko hainbat merkatarik prezio merkeagoan jarriko dituzte hainbat produktu. Inflazioak kezka eragiten duen garaiotan, aurrekoetan baino interesgarriago bila-

katu daiteke Outlet kalean Salkinen ekimenara hurbiltzera. Merkatalgunearen kanpoaldean jarritako postuetan erosi ahal izango dira produktu horiek. Eguraldiak lagunduz gero, parte hartze handia espero da.

Honako hauexek dira ekimenean parte hartuko dutenak: Amabi, Gloss, Durazno, Alice, Amantegi, Ormendi kirolak, Potoko, Maindi, Xare, Iturbe, Gorostidi, Gamer, Izeia, Pepi, Cisneros, Gonzalez, Stop, Ernaitza.

Bezeroaren astea, irailaren 12tik 18ra

Astelehenean hasi eta iganderrate, bestalde, Salkineko dendetan erosketa egiteak saria dakar. 2 eta 5 euro arteko sariak lortu ahal izango dira.



Zumea kaleko Amabi merkatalgunea, iazko iraileko Outlet kalean ekimenean. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Hemen da ikasturte berria, eta oporraldian pilak kargatuta, iritsi da urteroko ohitura onak berreskuratzeko garaia ere. Horietako bat, askorentzat, izaten da euskaltegira hutsik egin gabe joatea, euskara ikasteko zein berreskuratzeko, hizkuntza maila hobetzeko, edota egunerokoan zein lan munduan aukera berriak zabalduko dizkieten ezagutza eta agiriak lortzeko.

Helburua edozein dela ere, bere neurrira egindako aukerarik ez dute faltako Buruntzaldeko herritarrek, beste urte batez, eskualdean bertan: udal euskaltegiek zein AEK euskaltegiek, maila eta behar guztietara egokitutako eskaintza daukate aukeran, egun eta ordutegi ezberdinetan.

Eta euskaltegiek erraztasunak ematen badituzte euskara ikasi edo indartzeko, are gehiago errazten dute eskualdeko sei udalek, horretara bideratutako dirulaguntzekin, euskararen erabilera normalizatu eta helduen alfabetatze eta euskalduntzea sustatzeko bidean.

Ikasturtean zehar euskara ikasteko, oso potoloak dira eskaintzen dituzten dirulaguntzak. Kasurik apalenetan, matrikularen %70a laguntzen dute diruz; baina oro har, hortik gorakoak dira dirulaguntzak, baita %100ekoak ere, kasu askotan. Baldintzak, berriz, ez dira zo-



Buruntzaldeko euskaltegiatako kideak eta udaletako euskara zerbitzuen ordezkariak Andoainen ateratako familia argazkian. KRONIKA

Erraztasunak eta dirulaguntza potoloak, euskara ikasteko erronkari heltzeko

Ikasturte berriarekin batera, euskaltegiatara joko dute eskualdeko herritar askok, euskara ikasteko zein berreskuratzeko, hizkuntza maila hobetzeko, agiriren bat lortzeko... Saiakera horretan, bidelagun izango dituzte Buruntzaldeko sei udalak ere

rrotzak: nahikoa da udalerrian errolatuta egotea, 16 urtetik gorakoa izatea, eta asistentzia minimo bat betetzea.

HABEren dirulaguntzak

Buruntzaldeko sei udalek eskainitako dirulaguntzez gain, HABEk (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) ematen dituenak ere eskuragarri daude. Kasu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta dauden guztiek egin dezakete eskaera, baldin eta aurreko ikasturtean gainditu bazuten HABEren ikastaro edo mailetako bat, homologatutako euskaltegi batean zein autoikasuntzarako zentro batean, edota HABEren egiaztatze-deialdientan agiria eskuratuta.

Gainditu edo egiaztatu duen maila bakoitzeko, ikasleak eskuratu dezake 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetako matrikuletan ordaindutako kopurua, gehieneko muga hauekin, mailaren arabera: A1 mailan, 600 euro; A2 mailan, 800 euro; B1 mailan, 900 euro; B2 mailan, 1000 euro; C1 mailan, 700 euro 1992an edo ondoren jaiotakoentzat, eta 150 euro 1991n edo aurretik jaiotakoentzat; eta C2 mailan, 100 euro.

Kasu batzuetan, HABEren dirulaguntza ez da udalek emandakoekin bateragarria; eta gainerakoetan, bi dirulaguntzen baturak ezingo du matrikularen kopuru osoa gainditu.

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Andoain

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Errolatuta egotea (sei hilabete lehenagotik), eta %85eko asistentzia. Dirulaguntzak: matrikularen %85a gehienez ere, baina %100a ere izan daiteke kasu batzuetan (diru-sarrera mugatuak, familia ugariak, merkataria, gurasoak, entrenatzaileak, atzerritarrak, begiraleak...). Barnetegietan, ostatu gastuen %50a gehienez ere.

Urnieta

Baldintzak: Errolatuta egotea, %80ko asistentzia eta aprobetxamendu ona izatea. Dirulaguntzak: matrikularen %100a gehienez ere langabetuentzat, eta %85a gehienez ere lanean ari direnentzat. Eskatzaile bakoitzeko, ikasturteko 600 eurokoa izango da laguntzaren muga, eta

udako ikastaroetan 200 eurokoa. Barnetegiko ikastaroetan, matrikula gastuak bakarrik lagunduko dira diruz.

Astigarraga

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Astigarragan errolatuta egotea (adin txikikoen kasuan, gurasoetako bat behintzat hala egotea), %85eko asistentzia edo ikasturtean gutxienez urrats bat gainditzea, eta egin beharreko ebaluazio probak egitea. Dirulaguntzak: matrikularen %100a, oinarritzko errenta jasotzen dutenek, Udalaren larrialdi laguntza jasotzen dutenek, 0-12 urte bitarteko haurren gurasoek, familia ugariko kideek, unibertsitateko edo lanbide heziketako ikasleek, merkatariek, eta azken hiru urteetan hiru maila gainditu dituztenek. Gainerakoek, matrikularen %75a. Gehienez ere 743 euro.

Hernani

Baldintzak: Errolatuta egotea, eta %85eko asistentzia. Dirulaguntzak: astean 10 ordu baino luzeagoak diren ikastaroetan, matrikularen %100a langabetuei, ikasleei, erretiratuei edo desgaitasunen bat dutenei; gainerakoek, matrikularen %75a. Astea 10 ordu edo laburragoak diren ikastaroetan, matrikularen %90a langabetuei, ikasleei, erretiratuei edo desgaitasunen bat dutenei; gainerakoek, matrikularen %70a. Barnetegietan, matrikularen %100a langabetuei, ikasleei, erretiratuei edo desgaitasunen bat dutenei; gainerakoek, matrikularen %75a.

Lasarte-Oria

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, errolatuta egotea (ikastaroak irauten duen

epe osoan), %85eko asistentzia eta aprobetxamendu ona izatea, eta ikastaro hauetakoren bat egin izatea: euskaltegi ikasturtean zeharreko ikastaroa (gutxienez 80 ordu), barnetegia (gutxienez hilabete segidan), edo udako ikastaroa. Dirulaguntzak: matrikularen %85a gehienez ere.

Usurbil

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Usurbilen errolatuta egotea, %80ko asistentzia, eta gutxienezko aprobetxamendua gainditzea. Ikastaroak iraun bitartean errolan alta edo baja emanez gero, ikasturtean zehar errolatuta egon den denboraren proportzioan jasoko da dirulaguntza. Dirulaguntzak: matrikularen %100a, 600 euroko mugarekin. Eskaera kopuruak dirulaguntzetarako aurreikusitako partida gaindituz gero, proportzionalki murriztuko dira dirulaguntzak.

Buruntzaldeko udalek %70 - %100 artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!

Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



**Eus
ka
ra**
ikasiz
Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili



buruntzaldea.eus

Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Plazaola, 2
943 591 704
andoain@aek.eus

LASARTE-ORIA

Muntteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea, 17 behe
607 625 233
lasarte@aek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi, 11
943 557 801 - 607 592 864
Zilegi eskola: 663 043 314
hernani@aek.eus

USURBIL

Etumeta AEK Euskaltegia
Kale Nagusia, 43 behe
607 609 379
usurbil@aek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia, 48
607 610 687
astigarraga@aek.eus

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren gainean)
943 361 621
euskaltegia@lasarte-oria.eus

Hernaniko Udal Euskaltegia

Karobieta, 63
(anbulatorio zaharra)
943 331 896
euskaltegi@hernani.eus

URNIETA

Urnietako AEK
Errekalde kalea, 1 (tarteko oina)
662 338 747
urnieta@aek.eus



Ana Belen Garcia eta Wayne Marshall organo-jotzaileak Artzain Onaren katedralean. IÑIGO IBAÑEZ

“Organoen ondareari dagokionez, erreferente gara”

ANA BELEN GARCIA PEREZ MUSIKARIA ETA ORGANOAN ADITUA

Donostiako Musika Hamabostaldiko nazioarteko organo-zikloaren zuzendari lanetan aritu da, udan. Kritikak, bereziki, Garciaren lana goraipatu du

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Musika Hamabostaldian organo zikloaren zuzendari izan zara. Zer nolako esperientzia izan da?

Nire lehen urtea da Donostiako Musika Hamabostaldiko organo-zikloaren zuzendari gisa, eta zalantzarik gabe, esperientzia zoragarria izan da. Benetan diotsut. Musika Hamabostaldiko zuzendari nagusiak kargu hau eskaintzeko zuzenean deitu zidanetik hilabeteetako lana izan da, nazioartean ospe handia duten organisten kartela osatuz eta organo erromantikoko nazioarteko ikastaroa ikasle-maila handikoa eginez.

Noiztik dator Hamabostaldiarekin duzun harremana?

Aspalditik dator. Urteen poderioz Hamabostaldian parte hartu dut piano-jotzaile eta organista modura. Organo-zikloari dagokionez, 2000an organo-karrerara hasi nuenetik kontzertue-

tara eta organo-ikastarora joaten hasi nintzen. Ondoren, ikastaroko ikasle aktiboa eta kolaboratzailea izan naiz, baita zikloko kontzertu askotan interpretatzailea ere.

Berria egunkarian zure izendapena bereziki nabarmendu dute: "Ana Belen Garcia ziklo honen zuzendaritzan jartzeak izan du zerikusirik, zalantzarik gabe. Musika Hamabostaldiaren beste arrakasta bat...". Zer sentitzen da horrelakoak irakurtzean?

Ezin ukatu kritika onak ondo hartzen direla beti. Beraz, oso pozgarria da norberaren lana baloratzea. Kontzertu-zikloan parte hartu duten instrumentu zoragarriak baloratzen dituzten eta horien parean dauden interpreteak ekartzea izan da nire helburua.

Atzerriko artistak hona ekartzen dituzue. Zer ikasi daiteke haiengandik?

Atzerriko artistak izan ala ez, oso interesgarria da edozein organo-jotzaile ikustea eta entzutea nazioartean ezaguna den gure ondare organistikora nola moldatzen den: nola erregistratzen duten (organoen soinu desberdinak nola aukeratzen dituzten), zer programa osatzen dituzten, musika nola interpretatzen duten...

Aurten zer da bereziki nabarmen- duko zenukeen emanaldia?

Kontzertu guztiak benetan bereziak izan dira niretzat. Oso profil desberdinak dituzten maisu-maistrak entzuteko aukera izan dugu. Organo-jotzaileez gain, horietako batzuk: konpositoreak, orkestra-zuzendariak, editoreak..., baina bereziki bete nauen baten bat nabarmendu beharko banu, onartu beharra daukat abuztuaren 5ekoa izan zela. Artzain Onaren katedrallean izan zen. Urteak dira kontzertu formatu hori buruan nuela, eta Musika Hamabostaldiari esker gauzatu ahal izan dut. Bi organo eta koruko kontzertua izan zen. Eta niretzat politena etxeko interpreteekin egitea izan zen: Gorka Miranda EASO Abesbatzako zuzendariarekin eta Oscar Candendo abesbatzako nire lankidearekin. Abesbatzaren lana goraipatu nahi nuke, benetan kontzertu zaila zelako eta denok lan handia egin genuelako emaitzarik onena lortzeko. Jende asko bertaratu zen, eta jakin badakit, jende asko bildu zelako ezin izan zela katedralera sartu. Zalantzarik gabe, kontzertu gogoangarria izan zen.

Saio didaktikoetan parte hartu izan duzu hango eta hemengo organoekin. Horrelako gehiago egin behar direla uste duzu?



Gunnar Idenstam eta Ana Belen Garcia organo-jotzaileak Usurbilgo parrokian. IÑIGO IBAÑEZ

Jakina! Faktore didaktikoa nire jardunbidean joera da. Eta nire esperientziak esaten dit ikusleek interes handia dutela egun oraindik ere 'ezezagun handia' den horren funtzionamendua ezagutzeko. Niri, pertsonalki, asko gustatzen zait kontzertu baten

**"ORGANOAREN
FUNTZIONAMENDUA
EZAGUTZEKO INTERES
HANDIA DU
ENTZULEGOAK"**

ondoren jendea animatzen denean korura igotzera eta instrumentuari buruzko gauzak galdetzerara. Beti da plazer bat.

Publikoari laguntzen dion beste faktore garrantzitsu bat kontzertuak aldarean jarri ohi den pantaila handi baten bidez ikus-

**"AURTENGO ZIKLOA
AMAITU AURRETIK,
JADA 2023KOAN
PENTSATZEN ARI
NINTZEN"**

tea da. Zalantzarik gabe, edozein tresna da interesgarria ikusteko, baina organoaren kasuan, elizetako koruetan egon ohi denez, are erakargarriagoa da.

Nazioarteko kideekin harremana izatean zer diote bertako jaialdiaz eta bertako organoez? European besteen pare gaudela esan daiteke?

Zikloaren aurreko hilabeteetan eta zikloak iraun duen bi asteetan organo-jotzaile askorekin hitz egiteko aukera izan dut: bertakoak eta atzerriarrak. Eta iruzkina beti bera da: organoen ondareari dagokionez, erreferen-

te gara, batez ere Aristide Cavallé-Coll organo-eraikitzaile frantsesaren instrumentuengatik. Donostiako Koruko Andre Mariaren Basilikako eta San Bizente elizetako organoak oso garrantzitsuak dira munduko edozein organo-jotzailerentzat. Era berean, Loiolako Santutegikoa, Azkoitia eta Usurbilen dauden Cavallé-Coll-ak. Hala ere, hauek dira ezagunenak, baina gure ondare organistikoa askoz haratago doa. Kilometro gutxietan instrumentu zoragarriez goza dezakegu, ezaugarritako ezberdinetako tresnak eta egile ezberdinek eraikitakoak, eta ahal dugun guztia egin behar dugu ezagutzera emateko eta kontserbatzeko.

Dagoeneko buruan duzue 2023ko edizioa?

Ziklo hau amaitu aurretik, hurrengoan pentsatzen ari nintzen. Ideia asko sortu zaizkit jaialdi hau garatzen ari zen bitartean. Aitortu behar dut, lan handia ekarri duen arren, zikloa zein ondo joan den ikusita edozeri irabazten diola. Orain gogoetarako eta aurtengoa nola gainditu pentsatzeko unea da.

Organo Erromantikoko Nazioarteko Ikastaroa ere nabarmendu nahiko zenuke.

Bai. Guztira 26 ikaslek parte hartu dute Organo Erromantikoko Nazioarteko Ikastaroan. XXXVIII. edizioa izan da. Euskal Herriko ikasleez gain, Burgos, Madril, Palentzia, Leon, Murtzia eta Mallorcakoak ere izan ziren. Baita Suitza, Italia, Frantzia eta Hego Koreako ikasleak ere. Michel Bouvard, frantziako errepertorio erromantikoko aditua izan zen irakaslea. Ikastaroak 5 egun iraun zuen, eta ikasleen kontzertu arrakastatsu batekin amaitu zen, Donostiako San Bizente elizan.



Urrietako
udala

Bertso afaria Urrietan

Irailaren 23an bertso-afaria izango da Oianumen, eta dagoeneko txartelak salgai daude Urrietako Kantoin, Matxon eta Oianumen Andoaingo Ernaitzan eta Aiurrin. 20:00tan ipinita dago, eta hitzordua bi udalerrietako Euskaraldiak babestuta dator. Amaia Agirrerren gidaritzapean, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus ariko dira kantari.



Xabier Lasa ANDOAIN

Emakumeak bigarren geratu zintzen, taldekako lehian.

Halaxe da. Alaitz Imaz, Jugatz Agirre, Maider Garmendia eta lauok austriarrengandik bi segundora geratu ginen; ziur nago aurrea hartuko geniekeela, oraintxe berriro txapelketa antolatuz gero! Hara euskal espedizioan joandako gizonen taldea seigarren geratu zen, eta gaztetxoena, mistoa, bigarren. Bateko eta besteko emaitzen gainetik, han bizitu genuen bizipen zoragarria azpimarratuko nuke.

Zer dela-eta bizipen zoragarria?

Austriako mugan, Bavariako lurraldean dagoen azken herrian (Thundorf) jokatu zen txapelketa, eta egundoko harrera egin ziguten bertakoek, exajeratua! 19 lagunek osatzen genuen euskal taldea, eta estreinatu gabeko etxe oso bat gure esku utzi ziguten, lehiaketako belarditik oso gertu. Harrerarekin ezin gara kexatu, kontrara! Gurekin arreta eskertzekoa izan da, benetan. Musuka jan gaituzte!

Bestalde, maila pertsonalean ere, ahantz ezina izanda bizipena. Bi arrazoiengatik. Emakumeen taldean ederki moldatu gara, adinez ni haien ama izan nintekeen arren. Iraganean hiru txandatan joana naiz Europako txapelketara, eta haiekin alderatuta, berezi-berezia izan da honako hau.

Zer gertatu zaizu, bada, halako sentsazio gozoarekin itzultzeko?

Aurreko txapelketa haietara, Uxue alaba nahiko umea zela hartuta joan nintzen. Haren menpe ibili nintzen pixka bat, lehian erabat zentratu ezinik. Oraingoan, ordea, bera aritu da nire zaintzaile lanak egiten. Zaintzaile ez ezik, itzultzailea, laguntzaile psikologikoa... Denetik izan da niretzat. Hizkuntzari dagokionez, etxetik kanpora zoazenean ohartzen zara zein garrantzitsua izaten den bertako jendearekin komunikatu ahal izatea, eta alde horretatik, izugarri ondo etorri zait Uxueren presentzia. Pentsa, behin, hango emakume bat hurbildu zitzaidan, preso dagoen Andoni gure iloba segalariaren argazki bat mugikorrean zeukala; emakume harekin ez dakizu ze hizketa gozoa eduki nuen, alaba bitartekari edukita!

Bestalde, ez naiz plaza-emakumea izan sekula. Zeharo ur-

"Indarrari eta arintasunari eusten diot, maiz egiten baitut kirola"

MARIA LUISA GABIRONDO SEGALARIA

HERRI-KIROLAK Lehiaketari heldu dio berriro, eta nola gainera! Europan bigarren postuan sailkatu ziren Alemanian Suitza, Hego Tirol, Austria eta Bavariako lehiakideen aurka



Gabirondo Zumea kalean duen Gaztelutxo tabernaren kanpoaldean. AIURRI

duria izan naiz beti lehiaketen bezperatan, belauak dardarka hasten zaizkit, eta kasik negarrez ere hasten naiz; ez dago ni aguantatuko nauenik! Lehiaketan parte hartzeko konpromisua hartu eta segituan "ze nezesitatea neukan baietz esateko!" errieta egiten nion nire buruari. Hargatik, harritu-harrituta nago lasai aritu naizelako Bavariako azken txapelketa honetan! Alabak eskaini didan babesagatik eta eman dizkidan animoengatik!

Hori bai, urduritasunaren kontu hori berari transmititu egin diodala ematen du, gaizki pasatzen baitu nik lehiatu aurreko egunean...

Ezustekoa izan da zu lehiara itzuli izana.

Almitza elkarteko Altzo (Miel Mari Jauregi) etorri zitzaidan proposamenarekin. "Baina zer esango du jendeak? Amona hau nora dijua!" esatea izan zen nire lehenbiziko erreakzioa. Hala ere, ez zuen askorik behar izan Altzo-k ni konbentzitzeko, barruko segarako arra pizteko. Bada, ikusita txapelketako asteak bat egiten zuela taberna itxearekin eta alaba ere nirekin etortzeko animatu zela, aurrera egin genuen!

Gauzak horrela, proposamen bat heltzen bazaizu, berriro ere heldu egingo al diozu segari?

Ez dakit, momentua ailegatzen denean, orduan erantzungo dut. Tabernaren ardura daukat, eta

horrek asko baldintza dezake erantzuna. Baina printzipioz, baietz esango dut. Bavariako txapelketak oso sentsazio pozgarriak eragin dizkit; sega eta bion artean berriro elkar aurkitzea ekarri dit, gustura eta nerbioak airean eduki gabe aritu naiz, eta horrek ere eragin nazake.

Utzi zeneukan sega...

Bai, orain hiruzpalau urte helduko nion azkeneko aldiz, lehiaketaren batean. Inbidia izugarria pasatzen nuen hasieran segalari bat lanean belazean ikusi aldiro, Etxeberrietan edo Goiburun auzoen arteko lehiak egin dituztenean, zer esanik ez! Lasterr pizten zait barruan daramadan grina!

Kontziente naiz urteek aurrera egiten dutela, baina, aldi berean, eta, nahi izanez gero, ez zaidala kostako segari puntua harrapatzea.

Indarrari nahiz arintasunari eusten diot, maiztasunez egiten baitut kirola, eta zer esanik ez teknikari! Izan ere, baserri giroan hazia naiz eta segan aritzeko jaio nintzela esango nuke; batzuk soinu-jole izateko berezkoa edukitzen duten bezala, berdin segarako nik.

Jendaurrean segari heldu zion lehen emakumea izango zara...

Ez nizuke esango hala naizen edo ez. Gogoratzen dut 40 bat urte nituenean, jada Gazteluko baserri-rik kalera jaitsi nintzela, Tolosako Iurramendin sega proba batean mutilek segalari bat falta zuten taldea osatzeko, eta anaiak animatu egin ninduen. Baliteke, bai, orduan nobedadea izatea emakume bat segan ikustea. Handik hilabete batera, Alemanian jokatu zen Europako txapelketa irabaztea lortu nuen. Anaiak sega prestatu eta eskura ipintzen zidan, eta ni aurrera!

Nola ikusten duzu segaren osasuna, egun?

Baikor eta ezkor izateko arrazoiak eskaintzen digu sega munduak gaur egun. Alderdi baikorren zerrendan, honako hauek aipatuko nituzke: gaztetxoak badatoz irrikaz atzetik, segalaria izandako Joxe anaiak prestatzen ditu horietako asko; gero eta emakume gehiago ari dira animatzen; Bavariako txapelketarako euskal taldea antolatu duen Almitza elkartea sekulako lana egiten ari da sega sustatzeko... Gainera, azken aldian, Europa-



Euskal Herriatik Bavariariako txapelketara joandako euskal taldea. AIURRI

tik ekarri den modalitateak, belar mozketan azkartasuna eta txukuntasuna baloratzen duenak, gazte jendea erakarri dezake, ez baita arnas luzeko lana eskatzen duen modalitate tradizionala bezain exijentea.

Baina bestetik, errealitatea ez da batere itxaropentsua; segaren munduak, bere praktika eta zaletasuna, mugatua izaten segitzen du. Tolosaldea, Goierri eta Nafarroako zenbait eskualdeetatik kanpo, apenas dabil inor segan.

Azken urteetan segan jaun eta jabe dabilen Julen (Gabirondo) iloba ikusten duzu, eta poztu beharrean tristetu egiten zara: asteen hiru entrenamendu egingo ditu, lanean, igual, hamar bat ordu egin eta gero; belazeak topatu behar ditu baserriz baserri entrenatzeko, eta gero, irabazten ditu irabazi beharre-

ko guztiak, eta ordainean husteria besterik ez du jasotzen. Aizkoran ere hasia da, eta berdin-berdin, entrenatzeko egurrak-eta ere bere poltsikotik erosi behar.

Horixe da segaren eta gainerako herri kirolen patua. Ez baitira aintzat hartzen, ez baitakate erakunde bultzadarik edo komunikabideen eta kirol zaletuen arretarik... Horrela ez dago gazteak erakartzerik.

Euskal Herria ezin gorago jartzen dugu harro-harro; euskaldunon parekorik ez omen da munduan. Baina zer egiten dugu gero, baserri munduko eginkizunetatik irteten diren geure kirolen alde? Futbolari erakunde publikoetatik edo herritarrek futbolera bideratzen diren makina bat miloi euro horietatik, sikiera zatitxo txiki bat herri kirolletara joango balitz...

Sega Euskal Herria nazioartean ofizialki ordezkatzeko dezakeen kirol bakanetakoa izango da.

Bai, halaxe da aspalditik. Ez dirudi aurreratzen ari garenik azken urteotan, kirol nagusiei erreparatzen badiegu behintzat.

“Aztala Lurrean” dokumentalaren filmaketa saioetan parte hartu omen duzu.

Segalaritza sustatzeko ari dira osatzen, Aloña Jauregi dabil horren atzean. Baserria, segalariak eta segalaritza, bere etorkizuna... hartu ditu gaitzat dokumentalak. Segaren munduko hainbat jende elkarrizketatzen ari dira, eta Bavarian ni ere harrapatu ninduten, hantxe filmatzen aritu baitziren. Itxura polita dauka dokumentalak, eta hemendik urte eta piko estreinatu ahal izango dutela esan digute.



Amiano eta Beloki irabazleak. ANTIGUA

Beloki eta Amiano txapelkun Antiguako pilota txapelketan

PILOTA Promesen mailan pilota-erakustaldia eman zuten andoaindarrak eta irundarrak (9-22)

Mikel Arberas ANDOAIN

Jendetza elkartu zen Antiguako pilota finalean. Txapelketa entzutetsua da eta ikusmira handia sortzen du; izan ere, Euskal Herrian zer esana ematen duten eta emango duten pilotariak elkartzen baitira: emakumezkoetan, promesetan eta nagusietan. 74. edizioa amaitu berri-tan ikusmira handia sortu dute hainbat pelotarik, tartean, Eneko Beloki gazte andoaindarrak.

Promesen mailako partida, Zubizarreta-Landa (gorri) eta Amiano-Beloki (urdin) bikoteen artekoa izan zen. Txapa bota baino lehen, berezitasun baten berri eman zuen aurkezleak: “Partidak bi tantoko aldearekin amaitu behar du nahitaez. Hau da, 21na berdinduta joanez gero, 23ra luzatuko da partida, gehienez 25era”. Horren ostean, txapa airera bota eta gorriek egin zuten lehen sakea.

Hasiera batean norgehiagoka orekatua izango zela zirudien arren, lehen txanpan 6 hutseko aldea lortu zuten urdinek. Amianok erasoan zein defentsan maila ona erakutsi zuen. Min handia egiten zuen ezker eskuaz txokoa baliatuta. Atzealdean, Belokik segurtasuna erakustean gain, Landa aurkaria mendean edukitzea lortu zuen, atzeko koadroetan kokatuaz. Urdinak partida osoan gailendu ziren.

Bikote bezala, maila bereziak altua eman zuten irabazleek. Eneko Belokik defendatu eta atzelaria mendean hartu zuen; Unai Amianok, berriz, erasotu eta tantoa amaitu.

Amaieran, sari banaketa egin zen eta txapela preziatua jasotzeaz gain, irabazleek garaikur bana jaso zuten. Belokik dotoreziaren Camino Agirre saria jaso zuen. Amianok, berriz, Kotisal sari preziatua.

TOLOSA

HIZKUNTZA

ESKOLA

OFIZIALA

72,36€
Ikasturte osoa

2022-2023

MATRIKULA OFIZIALA

Ziurtagiri Ofiziala

English: A1 - A2 - B1 - B2.1* - B2.2* - C1*

Français: A1 - A2 - B1 - B2.1 - B2.2

*Ikastaro erdipresentzialak ere

EUSKO JAURLARITZA
GOBERNUA

HEOL
Hizkuntza Eskola Ofiziala
Escuelas Oficiales de Tolosa

Paper Kalea, 1
20400 Tolosa - 943 69 75 60
info@eitolosaheo.net
www.eitolosaheo.hezkuntza.net



Ubitarte zelaian denboraldi hasierako bi txapelketa jokatu dira, datozen bi asteburuetan. **AIURRI**

Urdinak lehiari ekiteko prest

FUTBOLA Uda amaituta, egunerokotasuna itzultzeko ordua iritsi da; horrekin batera, kirol taldeak ere martxan jarri dira, aurki hasiko baitira ligarekin eta txapelketekin. Aurretik lagunarteko txapelketa antolatu dituzte, datozen bi asteburuetan jokatu direnak

Mikel Arberas ANDOAIN

Euskalduna futbol taldea martxan da denboraldi berriari begira. Hainbat helburu gainea, ligari eta txapelketei ekiteko prest daude. Aurtengoan, Iker Lasquibarrek eta Igor Berek hartu dute taldeak kudeatu eta antolatze kirol ardurak; uda guztian lanean aritu dira taldeak kudeatzeko.

Esanak esan, aurrendenboraldia abuztuaren amaialdean hasi zuten eta hainbat lagunarteko partida jokatu dituzte. Oporraldien ostean, jokalariek gutxina-ka taldera batzen hasi dira, datozen asteetako partidei eta txapelketei aurre egiteko.

Urtero bezalaxe, hainbat taldek hasiko dute liga aurki; besteak beste, areto futbolekoek,

gorengo mailakoek, jubenilek, kadeteek eta infantilek. Gainera, azken hiru kategoriek ohorezko mailan jokatu dute eta horri eustea izango dute helburu. Horrez gain, alebinak aste honetan hasi dira teknifikazio entrenamenduetan. Euskaldunako Zuzendaritzak azaldu duenez, zoritxarrez, aurtengoan ez da emakumezkoen gorengo

talderik sortzeko aukerarik egon. Hala eta guztiz ere, kadeteetan eta infantiletan nesken bi taldek parte hartuko dute; nahiz eta onartu duten zaila egin zaiela kadete mailako taldea osatzea. Horiek horrela, taldean jokatzeko eta ezagutzera etortzeko gonbita luzatu du Euskaldunak.

Helburuei dagokionez, zuzendaritzak argi adierazi du: "Helburu nagusienetako bat ohorezko maileri eustea litzateke. Horrez gain, areto futbolean, aurreko urtean bezalaxe, lehen postuetan sailkatu nahiko genuke. Maila oso ona erakutsi zuten iaz". Esanak esan, argi adierazi dute emaitzez haratago, zalegoen ilusioa piztea eta jokalariek denboraldiaz gozatzea dela lortu nahi dutena: "Oso garrantzitsua da zaleen ilusioa piztea, baita jokalariek gustura sentiaraztea. Gainera, talde interesgarriak sortu ditugu, izan ere, kolore urdina sentitzen duten herritar ugari bildu ditugu".

Larramendi txapelketa, irailaren 10ean

XLVIII. edizioa jokatu da larunbat honetan, Ubitarte zelaian. Hauek partidak:

- 17:00 Billabona-Danena.
- 18:00 Danena-Euskalduna.
- 19:00 Euskalduna-Billabona.

"Gurru"ren omenezko lehen memoriala, irailaren 17an

Euskaldunak Iñaki Gurrutxagaren omenezko lehen memoriala antolatu du, datorren irailaren 17rako. Iaz, irailaren 16an zendu zen andoaindarra; Euskalduna taldearen zale amorratua izateaz gain, jokalaria urdina izan zen eta, azken urteetan, zuzendaritzako kide ere bazen.

Jon Gaztañaga. **NORTHEAST**

FUTBOLA Indiako Ligan jokatu du Jon Gaztañagak

NorthEast United Football Club taldeak asteartean eman zuen ofizialki albistea. Andoaindarra dagoeneko Indian da, talde berrian murgilduta. Cultural Leonesa taldean denboraldia amaitu eta gero, India aldera abiatu da. Zorte on!

SASKIBALOA Ganbara taldea denboraldi berrian murgildu da

Saskibaloia jokalariek hilaren 5ean ekin zioten denboraldi berriari. Lehian urrian murgilduko dira. Nabarmendu beharra dago, lehen aldiz, Ganbarak emakumezkoen infantil taldea edukiko duela 2022-2023 denboraldian, hamabost jokalarirekin. Kadeteetan eta juniorretan erabaki batzuk hartzeke daude eta egoeraren arabera moldatuko dira. Ildo beretik jarraituz, Ganbara taldea larri dabil entrenatzaileen aldetik eta saskibaloia gustuko dutenen laguntza behar du.



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiz harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzailak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urdeta).

Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



andoaINDARRA
euskaraz



Udal kiroldegia. UDALA

Ikastaroen deialdia egin dute Urnietako Kiroldegian

IKASTAROAK Irailaren 18ra bitarte izango dute herritarrek ikastaroetan izena emateko aukera

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Kiroldegia datorren irailaren 27an hasiko du aurtengo ikasturtea, bi urteko eraberritze-lanen ondoren, pasa den ekainaren 8an kiroldegi berria martxan ipini ostean.

Kirol ikastaroak hilabete amaieran hasiko baldin badira ere, irailaren 18ra bitartean egin beharko dute matrikulazioa ikasle berriek. Kiroldegian bertan egin behar da honako ordu-tegi honetan:

- Astelehenetik ostiralera, 08:30-22:00 ordutegian.
- Larunbatetan, 09:00-21:00 ordutegian.
- Igande eta jai egunetan, 09:00-14:00 ordutegian.

Lehentasuna Urnietan

errolatuta daudenek dute

Izena ematean, Urnietan errolatutako herritarrek izango dute lehentasuna. Ikastaroak guztien-

go ikasle kopuru zehaztu batek izena ematen badu bakarrik emango dira, eta beharrezkoa izanez gero, zozketa egingo da, 3. adineko ikastaroan izan ezik.


Eskaintza zabala

Guztira 16 kirol ikastaro eskainiko dira, eta horietatik zenbait lehen aldiz eskainiko dira:

- Spinning.
- Zunba.
- Total training.
- Tonifikazioa.
- 3. adina.
- Aholkularitza gimnasioan.
- Pilates.
- Gimnasia funtzionala.
- Bodypump.
- Gap-progresiboak.
- Cardiobox.
- Defentsa pertsonala.
- Haurdun gunea.
- Bizkar eskola.
- Stretching.
- Hezi jolas.

Pentatloiko finalean parte hartuko du Gabirondok

HERRI-KIROLAK Irailaren 24an jokatu da finala. Azpeitiko zezen-plazan lortu zuen sailkapena



Gabirondo. UZTARRIA

Erredakzioa ANDOAIN

Hamabi kirolarik hartu zuten parte Azpeitiako zezen-plazan larunbatean jokatu zen Gizonezkoen V. Euskal Pentatloi Sariko finalaurrekoan. Seik lortu zuten irailaren 24rako finalerako txartela: Zaldia, Izeta VI.a, Gabirondo, Atutxa, Zelai IV.a eta Basozabal. Honako bost probei egin behar izan zieten aurre guztiek ere: 100 kiloko bolari, hamar jasoaldi; Harri tiratzean, 400 kiloko harriarekin plaza bana; Aizkoran, kanaerdiko eta 45 ontzako enbor bana; 50 kiloko txingekin (hiru plaza); Korrika, kilometro bat (10 itzuli).

Finalaurrekoa

1. Xabier Zaldia (12:12).
2. Izeta VI (12:22).
3. Julen Gabirondo (13:21).
4. Aitzol Atutxa (13:22).
5. Ioritz Gisasola Zelai IV (13:27).
6. Jokin Urretabizkaia (13:32).

IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Trenera igo, edo trenean egon

Gure bizitzako egun bereziek momentu asko dituzte 24 ordutan. Hitzordu edo eginkizun garrantzitsuren bat baduzu, saihestezinak dira sabeleko pinpilinpauxak, eta hitzordu horrek gauza goxoren bat ekar badiezadakezu, zer esanik ez. Trebatu zaren kirol diziplinako buruz buruko finala jokatzeko aukera ematen dizun partida jokatzeko, adibidez. Imanol Ansak Endika Barrenetxearen aurka jokatu zuen larunbatean buruz buruko finalerdia. Endika bera urduri zegoen, partida atarian, eta dagoeneko bi aldiz izan da buruz buruko txapeldun:

“Prozesu hori etorri egiten da, nahitaez, gorputzak nabaritu egiten du jaikitzen zarenetik eguna ezberdina datorrela”.

Ansa ere urduri zegoen. Urduri baino lasai. Lasai baino urduri. Emaizta bat edo beste izan. Erantzukizunaren albo kalteak atzean uzten ikasi du urteen joan-etorrian. Ikaragarri sufritu du urnietarrak erremonteko historiako izar distiratsuenaren gonapean bizitzen. Javi Urrizaren garai bertsuan egokitu izanaren albo kalteak dira, maisu nafarra gaintzea oso oso zaila baita. Egoera horrekin bizitzen ikasi du, baina, tarteka historiako onenetako baten pare jokatzeko aukera izan duela jakitun. Antzeko egoera bizi izan du Endika Barrenetxea kidearekin. Hernaniarra



Ansa. ORIAMENDI

Imanol bera baino erremontista hobe. Ez askogatik, baina momentuz hobe.

30-23 galdu zuen Imanol Ansak finalerdia. Berrir finala jokatu nahi eta ezin. 24-23koarekin gertu egin zen, baina ezin. “Lasai nago, ez dut asmatu, eta kito. Hurrengoan beharko du”, bota zuen Ansak partida bukaeran. Barrenetxeak sententzia polita garaitu berri zuen aurkariarentzat: “Animoak eman nahi nizkioke Imanol-i, jakin dezala hemen kantxaraten garenon arten pilotari indartsuenetakoa dela. Ez dator, aspaldi dago gurekin”.

Trenera igotzea baino, trenean igota baitago aspaldi Imanol. Larunbat gauean, finalerdiaren ostean lagunekin herriko Riojano tabernan afaltzen ari zen bitartean hainbat tren pasa ziren bere ondotik. Denetara igo zen aspaldi Imanol.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGURDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoin@aiurri.eus

LARUNBATA 10

URNIETA Lehiaketa

Eskultura aukeratzeko deialdian urnietarrek parte hartzeko aukera izango dute. 14 urtetik gorakoek eman dezakete botoa Urnieta.eus webguneko partaidetza atalean. Parte hartzeko azken eguna.

ANDOAIN Ikuszkirus

"[e.go]" ikuszkirusa, NDK Cia konpainiaren eskutik. Pertsona batean elkarrekin bizi diren pertsonaia ezberdinen arteko norgehiagoka. 19:00, Zumea plaza.

IGANDEA 11

URNIETA Igerilekua

Udako denboraldiaren amaiera Urnietako Udal igerilekuan. 10:00-20:30, azken eguna.

ANDOAIN Ikuszkirus

"Mikra" ikuszkirusa. Botere harremanak ikusarazteko, zirku disziplinak akrobatikoak lengoia gisan baliatzen dituen pieza da. 19:00, Goikoplaza.

OSTIRALA 16

URNIETA Etxeberri plaza jaietan

Egitaraua prest dute:
18:30 Txupinazoa.
19:00 Apar-festa.
20:30 Kontzertuak.

LARUNBATA 17

ANDOAIN Ikuszkirus

"Urbasa" ikuszkirusa, Hutsun eta Ortzi konpainiaren eskutik. Indarraren eta teknologiaren bidez hautsiko da arnasa lasai hartzen duen mendian. 18:00, Leitzarango Otieta parkea.

URNIETA Etxeberri plaza jaietan

Egun osoan zehar, ospakizunak:
11:30 Adin guztientzat Ginkana.
13:30 Herri bazkaria.
17:00 Bingoa.
19:00 Pintxo lehiaketa.
20:00 Kontzertua.
21:00 Herri afaria.
22:30 DJ Maik.

IGANDEA 18

URNIETA Etxeberri plaza jaietan

Jaien amaiera:
12:00 Txirrista irristakorra.
18:00 Zirkus ikuszkirusa.

ANDOAIN Ikuszkirus

"Do Not Disturb" ikuszkirusa, Andaluziako Vaiven Circo konpainiaren eskutik. Ikuszkirusak XX. mende hasierako edozein fabrikako lan egun batetara garamatza. 19:00, Goikoplaza.

ZINEMA




ANDOAIN

BASTERO
Dios mio, ¿pero que nos has hecho?
Ost, 9. 19:30.
Lar, 10. 19:30, 22:00.
Ig, 11. 19:30.
Astl, 12. 19:30, 22:00.
Minions
El Origen de Gru

Ost, 9. 17:00.
Lar, 10. 17:00.
Ig, 11. 17:00.

El test
Lar, 17. 19:30, 22:00.
Ig, 18. 19:30.
Astl, 19. 19:30, 22:00.
DC Liga de supermascotas
Lar, 17. 17:00.
Ig, 18. 17:00.



SINOPSIS



DIOS MIO, ¿PERO QUE NOS HAS HECHO?

Zuzendaria: Philippe de Chauveron. **Aktoreak:** Christian Clavier, Chantal Lauby, Jochen Hägele, Pascal Nzonzi, Bing Yin...
Herrialdea: Frantzia. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 98 minutu.



aek
euskara praktikoa

EUSKARA
IKASTEKO BIDE LAGUN ONENA

EUSKARA-IKASTAROAK

Urnietako AEKn (2022/2023)

MATRIKULAZIOA ZABALIK!
Irailaren 1etik 30era arte.

- Maila guztiak
- Aurrez aurreko eskolak
- Autoikaskuntza

Matrikulazioa eta informazioa:
Urnietako AEK (Errekalde kalea 1)
662 338 747 · urnieta@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Urnietako: matrikularen % 100 izango da, gehienez, langabetuentzat eta % 85, gehienez, lanean ari direnentzat.

HABEren dirulaguntza % 100era arteko dirulaguntza jasotzeko aukera.

Jai parekideen aldeko formakuntza saioa Urnietan

Jaietan bereziki parte hartze aktiboa duten norbanakoei zein eragileei dago zuzenduta

Erredakzioa ANDOAIN
Irailaren 14an euskaraz izango da formakuntza, eta, aldiz, 15ean, gazteleraz. Lekaio Kultur Etxean egingo da, 17:30-20:30 artean. Izen-emate epea irailaren 11ra

arte egongo da zabalik, lekua bete arte. Horrela eskatuz gero, zaintza zerbitzua eskainiko da. Urnieta.eus gunean dagoen izen emate formularioan eskatu behar da zerbitzu hori.

‘Ikuszirkus’ zirko jaialdiaren edizio berria iristear da

"Urbasa" txalaparta eta akrobazia ikuskizuna Otietan izango da, datorren irailaren 17an

Erredakzioa ANDOAIN
Aurtengoan doako lau kale ikuskizun antolatu ditu Udaleko Kultura sailak. Datozen bi aste-burutan lau ikuskizunez gozatu ahal izango da. ['e.go] euskal ekoizpenarekin abiatuko da aurtengo edizioa, larunbat ho-

netan bertan. Eta igandean Mi-kra ikuskizuna, Adunan sortu den egitasmoa. Irailaren 17ko ikuskizuna Otietan izango da eta hara joateko bus-zerbitzua eskainiko dute. Lau hitzorduen xehetasunak Agenda atalean aurki daitezke.



Mari Karmen eta Xanti, Konstituzio Plazako ekitaldian. AIURRI

Altuna sagardotegiko Xanti eta Mari Karmeni omenaldia

65 urte bete dituzten sagardogileak omendu zituzten Donostiako Sagardo egunean, aurreko larunbatean

Erredakzioa URNIETA
Astigarragako Rezola Sagardotegiko Joxe Ramon Rezola, Oiar-tzungo Ordo-Zelai Sagardotegi-ko Isabel Garmendia eta Joxe Errandonea, Ataungo Urbitarte Sagardotegiko Demetrio Terra-dillos eta Urnietako Altuna Sa-

gardotegiko Xanti Altuna eta Mari Carmen Jauregi omendu zituen elkartek. Adinarekin batera, beraz, Altunakoen ibil-bidea saritu zuten Donostian. Ibon Aburuza elkarteko lehen-dakari eta juntakideen eskutik jaso zuten oroigarria.

ZORION AGURRAK



URNIETA
Zorionak Lizar
Irailaren 9an 6 urte beteko dituzu. Ondo pasa eguna etxeko eta lagun guziekin.



ANDOAIN
Zorionak Juanita
Egun ona pasa zure 80. urtebetetzean. Muxu handi bat etxeko guztien partetik

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK
Irailak 12, astelehena. Andoain 16:30-20:30. Anbulatorioa.
Irailak 21, asteazkena. Urnieta 16:30-20:30. Gaztelekua.

BERTSO AFARIA

IRAILAK 23, OSTIRALA

20:00. Oianume, Urnieta. 30€

Txartelak: Kantoi, Matxo, Oianume, Ernaitza, Aiurri



Maialen Lujanbio
Ametis Arzallus
Gai-jartzailea: Amaia Agirre



EUSKARALDIA

ANTOLATZAILEAK:

AIURRI

ONISTURRA

Poxta Zahar

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

ANDOAIN

IRAILAK 30, OSTIRALA

Aurkezpen-festa

EUSKARALDIA

**PLAZA MOREA
BEKOPLAZA**

IKUSKIZUNAK:

**19:30
PERKUSIOA
Plaza Morea-Bekoplaza
Mulamborekin kalejira.**

**20:15-21:00
AFARI MUSIKATUA
Bekoplaza
Bokata afaria.**

**21:00-22:00
KONTZERTUA
Bekoplaza
Elektropottote.**

